

## Matiak Egurtzegiko bizikidetza-etxeguneak inauguratu ditu

- 127 pertsona biziko dira Egurtzegiko bizikidetza-etxeguneetan
- Egurtzegi 7 bizikidetza-unitate izango ditu. 6 adinekoentzat eta 1 dibertsitate funtzionala dutenentzat, baita eguneko zentro bat ere.
- Egurtzegi Usurbilgo zainketa-ekosisteman integratzen da.

*Donostia, 2023ko uztailak 11.* Gaur goizean inauguratu dira ofizialki Egurtzegiko bizikidetza-etxeguneak, Usurbilen. Ekitaldi honetan, Maria Carmen Garmendiak (Matiako Patronatuko presidentea) ongietorria eman die bertaratutako guztiei. Besteak beste, Eider Mendoza (diputatu nagusia) eta Agurtzane Solaberrieta (Usurbilgo alkatea), proiektu berritzaile hau babestu duten erakundeetako ordezkariak.

Eider Mendoza Gipuzkoako ahalduen nagusiak, Egurtzegi egoitza berriaren osagai fisiko "gutziz berritzailea" eta "berrikuntza-boterea" azpimarratu ditu. Izan ere, egoitza berriak mendekotasuna duten adineko pertsonen aukera fisiko "ezin hobea" eskaintzen die, etxean zaintzen jarraitu ezin badute, etxean bezala sentitu ahal izateko. Horrela, hirugarren sektore sozialaren eskutik, Gipuzkoan zainketen arloan egiten ari den "jauzi kualitatibo handia" nabarmendu du, eta Matiak ildo horretan egiten duen lana baloratu eta eskertu du.

Mendozak azpimarratu du "*pertsonak, haien ongizatea, autonomia eta zainketen kalitatea direla Gipuzkoako gizarte-politiken ardatz nagusia*". Gaineratu duenez, proiektu honek azken urteotan lurraldean garatzen ari den zainketa-eredua eraldatzen laguntzen du, "*berrikuntzatik, pertsonalizatutik eta komunitatearekiko loturatik abiatuta*."

Bestalde, Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak "Egurtzegi Euskal Autonomia Erkidegoan proiektu berritzailea eta aitzindaria" dela adierazi du, "bai ikuspuntu sozialetik, bai hirigintzatik; izan ere, Matiak adinekoei zuzendutako arreta-eredu berri bat jarriko du martxan, ezinbestean hona etorri behar izan duen pertsona etxean bezala senti dadin. Proiektu eta zerbitzu hau Usurbilen eraikitzen ari garen zaintza ekosistemaren parte izango da aurrerantzean."

Solaberrietak adierazi du Usurbilgo udalerrian bi edo hiru urteko hausnarketa kolektibo eta komunitario zabala egin dela tokiko zainketen ekosistema berri bat eraikitzeko, eta dagoeneko inplementazio-estrategia bat eta hori egin ahal izateko ibilbide-orri argi bat definituta dagoela.

Jaione Artiedak (Egurtzegiko zuzendaria) nabarmendu duenez, "bizikidetza-etxeguneek erantzuna ematen diote euskal gizartearen ahotsari, guztiok ditugun eskubideetan oinarritutako eredu baten pean zaindu nahi ditugun pertsonen: duintasunerako eskubidea, baliotsua eta independentea izateko eskubidea, autonomiarako eskubidea, geure erabakiak hartzeko eskubidea, gure bizi-proiektuarekin jarraitzeko eskubidea eta zaintza pertsonalizatuak izateko eskubidea, non nirekin dauden profesionalek nor naizen jakingo duten, nire historia ezagutuko duten eta nire lehentasunen eta balioen arabera behar ditudan laguntzak emango dizkidaten."

### **Egurtzegi buruz**

Egurtzegi Usurbilgo zainketa-ekosistemaren barruan kokatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zaintza HerriLab estrategiaren barruan dagoen udalerrian. Usurbilek lan handia egin du herri zainketa eta auzo-sareetan, hurbileko zerbitzuetan eta tokiko zaintza-ekosistema bat sortzeko liderra izateko, non hausnarketa eta parte-hartzea ardatz diren Egurtzegi beste pieza bat izateko eta zainketen jarraipenean aurrera egiteko.

# matia

Egurtzegi bizitegi-eraikuntza da, eta lehen aldiz diseinatu da etxebizitzaren esparru kontzeptualetik, eta ez eredu instituzional tradizionalatik. Printzipio hauetan oinarritzen da:

- Diseinu arkitektonikoa, bizitegi-eredua eta etxean bezala bizitzea bermatuko duten espazioen eskala bateragarri egiten dituena. Horretarako, etxebizitzari buruzko kontzeptua sartu da. Kontzeptu horrek logelarena ordeztu du, eta benetan bermatzen du espazio pribatu bat dagoela, etxebizitza bateko gela guztiak barne hartzen dituena. Familiekin, lagunekin edo boluntarioekin komunikatzeak eta laguntzeak pribatutasun-zentzua hartzen du, eta erakunde tradizionalak ezin du hori lortu.
- 15 eta 20 pertsona artean biziko diren bizikidetza-unitateen kontzeptutik diseinatu. Unitate horiek bi unitate txikitan azpibanatu ahal izango dira, ziur baikaude laster egitura horretara egokitu ahal izango direla.
- Eguneko zentroak orientazio erabat komunitarioa du, eta udalerrriak erabiltzaileei eskaintzen dizkien aukera guztietara irekitzen da. Pertsonak beren etxeetan jarraitzea bideratutako zerbitzua izango da, zaintza-sare usurbildarreko etxeko zerbitzuekin (EELZ, Laguntza Pertsonala) osagarritasuna bermatuz.

Guztira, 110 bizileku eskaintzen ditu 127 lagunentzat. Beirazko elementu arinagoekin konektatuta dauden baina modu independentean funtzionatzen duten lau eraikinek osatzen dute. Bizilekuak zazpi bizikidetza-unitatetan biltzen dira, hainbat solairutan. Lau bizikidetza-unitate mendekotasuna duten adinekoei zuzenduta daude, beste bi profil psikogeriatrikoa duten adinekoei, eta horietako bat dibertsitate funtzionala duten pertsonari, eta bi unitate dituen eguneko zentro bat, horietako bakoitza 20 pertsonarentzat. Plaza guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itunduta daude.

Bizilekuetara sartu aurretik, espazio txiki bat dago, pertsona bakoitza irudikatzen duten objektuekin edo altzariekin pertsonalizatua izateko aukera ematen duena; horrela, dementsia duten pertsonari orientazioa eta identifikazioa ematen zaie.

Gainera, etxebizitza bakoitzak "sukalde" txiki bat du, eta horrek etxebizitzaren kontzeptua mantentzen laguntzen du, logelarena baino. Bizilekuaren gune nagusia logelak eta egongelak osatzen dute. Armairu batek bereizten ditu, pribatutasuna errazteko, baina ez ditu erabiltzen espazioa eta zabaltasun-sentsazioa murrizten duten trenkadak.

Azkenik, bainu propio egokitu bat, zaintzaileei beharrezko lanak egiten laguntzeko adinako dimentsioa duena. Bizilekuaren espazio osoa pribatu gisa planteatzen da, eta, beraz, pertsonak altzariz hornitu eta apaindu dezake. Norberaren etxebizitza apaintzeko erabiltzen ziren objektu pertsonalak eta altzariak ezinbesteko elementu bihurtzen dira etxebizitza berria sortzeko, gure bizimodua irudikatzen baitute eta hari lotutako oroitzapenak gordetzen baitituzte.

Egurtzegik, halaber, komunitateari irekitako zerbitzuak ditu, hala nola ile-apaindegia eta terraza duen taberna-kafetegia, aisialdirako eta bizilagunen arteko harreman informaletarako gune izan nahi dutenak.

Egurtzegik 6.4 milioi euroko finantzaketa izan du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik, Matiak eta foru erakundeak sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren bidez (2,8) eta Foru Aldundiak kudeatzen duen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen Europako funtsen bidez (3,6). Bestalde, Usurbilgo Udalak % 90eko hoberia eman du, Zerga Ordenantzan obrak zergapetzen dituena, eta 480.000 euro irisgarritasun unibertsaleko proiektuari.

# matia

## **Matia**ri buruz

Matia irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorrekotzat jotzen da, eta 130 urte baino gehiagoko esperientzia du Gipuzkoan zerbitzu soziosanitarioak, etxez etxeoak eta komunitarioak ematen. Patronatuko kideak hainbat lanbide-eremutako 7 pertsona dira, eta bakoitzak bere borondatez hartzen du parte bere gobernantzan.

Gizarteari ekarpena egiteko asmo argiarekin, Matian ezagutza eta berrikuntza etengabe bilatu, garatu eta aplikatzea nabarmentzen da, baita gizartean zabaltzea ere (I+G+b), Matia Institutu Gerontologikoaren bidez. Institutu hori 2003. urtetik dago martxan.

Zerbitzuak hainbat asistentzia-mailatan ematen dira, bai osasunaren arloan, bai egoitza-, komunitate- eta etxe-zerbitzuetan, eredu integral baten pean eta pertsona ardatz hartuta, autonomia-, duintasun- eta pertsonalizazio-printzipioetan oinarrituta.